

**IRAKASKUNTZA-GIDA** 2022/23

**Ikastegia** 231 - Psikologia Fakultatea

**Zikl.** Zehaztugabea

**Plana** GPSICO20 - Psikologiako Gradua

**Ikastaroa** 2. maila

**IRAKASGAIA**

25071 - Taldeen Psikologia

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Taldeen psikologia irakasgaia derrigorrezkoa da eta horrek esan nahi du bertan azaldutako jakintza Psikologo ororentzat oinarrizkoa dela, ondorengo espezializazioa edozein izanda ere.

Taldeen Psikologiaren historia Gizarte Psikologiaren baitan kokatzen da, naiz eta beste hainbat jakintza esparruekin loturak izan. Esaterako, Psikologia Klinikoarekin, Hezkuntzaren Psikologiarekin edota Erakundeen Psikologiarekin. Bestalde, Psikologia Graduaren baitan Taldeen Psikologiak harreman estua du Gizarte Psikologia eta Lanaren eta Erakundeen Psikologia irakasgaiekin eta bereziki, Taldeko Esku-hartze Psikosozialerako Sarrera eta Ekipo eta Erakundeen Hobekuntzarako Teknikak eta Lanabesak irakasgaietan.

Hurbilpen teoriko eta praktikoa abiatuz, ikasleak taldearekiko ezagutza eta trebakuntza berriak bereganatuko ditu. Zehazki, psikologiaren baitan Taldea landu duten paradigma desberdinetara hurbilduko gara eta beren inplikazioak aztertuko ditugu. Taldeak pertsonen arteko lotura edo elkarreraginaren ondorioz sortutako osotasun integral moduan aztertuko dugu, taldeak beste talde batzuekin duen harremanaren emaitza moduan ere ikusiko dugu, zeinak talde prozesu eta prozesu soziokognitibo bereziak sortzen dituen. Ondoren eta ikuspegi sistemikoaren baitan, taldea multzo konplexu moduan aztertuko dugu, taldea azterketa eta esku-hartze unitate moduan ulertzeko. Azkenik, talde egituraren eginkizuna eta zenbait talde prozesu zehatz landuko dira.

Ikasgai honetan garrantzitsua da ikasleak behaketarako, azterketarako eta diagnostikorako gaitasunak garatzea, baita taldeak esparru ezberdinetan esku-hartze psikosozialerako tresna gisa ulertzea ere.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

1. Taldeen psikologiaren ikaskuntzan eredu eta garapen teoriko nagusiak ezagutu.
2. Taldeen egituren, prozesuen eta esperientzien oinarrizko printzipioak ezagutu.
3. Taldeen psikologian ebaluazio eta diagnostiko metodoak ezagutu.
4. Taldeen egitura prozesuak eta dinamikak ikuspegi desberdinetatik behatzeko eta aztertzeke gai izan.
5. Taldeen gatazkak, beharrak eta helburuak identifikatzeko gai izan, eskuhartzerako teknika egokiak aukeratzuz.
6. Ikasgai landutako edukien ahozko eta idatzizko txostenak egiteko gai izan.

**CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS**

1. gaia. Talde kontzeptura hurbilpenak eta tipologia klasikoak
2. gaia. Taldearen eraketa garapena
3. gaia. Ikuspegi kolektibista vs ikuspegi indibidualista.
4. gaia. Taldea interakzioaren ikuspegitik
5. Gaia. Taldea ikuspegi sozio-kognitibotik
6. Gaia. Taldea ikuspegi sistemikotik
7. gaia. Taldearen egitura
8. gaia. Eragin sozialeko prozesuak taldean
9. gaia. Aplikazioak taldeen psikologian

**METODOLOGIA**

**IRAKASKUNTZA METODOLOGIA:**

**ESKOLA TEORIKOAK:**

Eskola teorikoetan gaien aurkezpenarako ariketa elkarreragileak erabiliko dira eta puntu teoriko nagusiak azalduko dira. Era berean, informazio iturriak aipatuko dira eta gaien gidoia eGela plataforman eskegiko da.

**PRAKTIKAK eta MINTEGIAK:**

Batetik, hurbilen teoriko ezberdinen lanketa eta beren aplikazioa kasuen azterkera eramango da eta bestetik, taldeko egitura eta eragin prozesuen behaketa eta azterketa egingo da.

**TAILERRAK:**

Tailerrak taldeka aurrera eramango dira eta bertan tande dinamikak diseinatu eta aurrera eramango dira. Talde dinamikak aurrera eramango dira.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30	8	12		1		9		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45	12	18		1,5		13,5		

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.  
 GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak  
 TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 20
- Test motatako proba % 30
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 50

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Bi ebaluazio aukeran:

Kurtsoan zehar:

(%50) Azterketa teorikoa.

(%20) Praktiak (Gelako Praktiak eta Ordenagailu praktikak)

(%20) Tailerrak

(%10) Mintegiak

Praktiken eta teoriaren arteko batez bestekoa egiteko, azterketa gaitua izatea ezinbesteko baldintza da.

Praktiketako notak ikasturterako soilik gordeko dira.

Maiatza-ekainean:

Maiatza-ekainean, azterketa osoa egiteko aukera dago. Bertan gaitu teorikoa, gelako jarduerak, mintegietakoak eta tailerretakoak barneratuko dira.

Azterketa deialdiari uko egitea:

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40a baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa

<<aurkezteke>> izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40a edo

hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu

baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

Etengabeko ebaluazioa ez denean, ikasleak azterketa deialdiari uko egiteko eskaria aurkeztuko ahal du fakultateko

idazkaritza orokorrean, irakasleari igorritako eskaria eginik, gehien dela azterketaren aldi ofiziala hasi baino hamar egun lehenago.

&#8226; Ebaluazio alternatiboa: aurrez aurreko ebaluazioa aurrera eramatea ezinezkoa bada, urrutetiko ebaluazio sistema martxan jarriko da. Ondorioz, azterketa teorikoa online egingo da eGela plataformaren bidez. Era berean, praktikak onlineko formatoria egokituko dira.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ez-ohiko deialdian, ikasleak amaierako azterketa egingo du data ofizialean.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Arnoso, A. eta Larrañaga, M. (2013). Taldeen Psikologia: kontzeptua, egitura eta prozesuak. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. <https://ikasmaterialak.ehu.eus/psikologia/taldeen-psikologia>

## BIBLIOGRAFÍA

### Oinarrizko bibliografia

- Arnosó, A. eta Larrañaga, M. (2013). Taldeen Psikologia: kontzeptua, egitura eta prozesuak. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. <https://ikasmaterialak.ehu.eus/psikologia/taldeen-psikologia>
- Ayestaran, S. (1999). Taldea Gizarte-Eraketa Gisa. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Blanco, A. Caballero, A. eta De la corte, L. (2004). Psicología de los grupos. Madril: Pearson.
- Canto, J.M. (1998). Psicología de los grupos. Estructura y procesos. Malaga: Aljibe.
- Gil, F. eta Alcover de la Hera, C.M. (1999). Introducción a la Psicología de los grupos. Madril: Pirámide.
- González, M.P. (1995). Orientaciones teóricas fundamentales en Psicología de los Grupos. Bartzelona: EUB.
- González, M.P. (1997). Psicología de los grupos. Teoría y aplicaciones. Madril: Síntesis.
- Huici, C. eta Morales, J.F. (2004), Psicología de Grupos I Estructura y Procesos. Madril: UNED.
- Martínez, M.C. eta Paterna, C. (2010). Manual de psicología de los grupos. Madril: Síntesis.
- Molero, F.; Lois, D.; García-Aél C. eta Gómez, A. (2017). Psicología de los grupos. Madril: UNED

### Gehiago sakontzeko bibliografia

#### Aldizkariak

- Revistas
- Advances in Group Processes
- Cahiers Internationaux de Psychologie Sociale
- European Review of Social Psychology
- Group Analysis
- Group Processes and Intergroup Relations
- International Journal of Group Psychotherapy
- Journal of Applied Social Psychology
- Journal of Cross-Cultural Psychology
- Journal of Experimental Social Psychology
- Journal of Personality and Social Psychology
- Journal of Social Psychology
- Revista de Psicología Social
- Revista de Psicología Social Aplicada
- Revue Internationale de Psychologie Sociale
- Small Group Research
- Uztaro

#### Interneteko helbide interesgarriak

- Arnosó, A. eta Larrañaga, M. (2013). Taldeen Psikologia: kontzeptua, egitura eta prozesuak. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. <https://ikasmaterialak.ehu.eus/psikologia/taldeen-psikologia>

## OHARRAK

Hurrengo ikasturteetarako ez dira gordeko praktikak, tailerrak eta mintegiak.